

gida

2025/2026



Ongi etorri Lapurreketara








BASERRI BIZITZA

NATURA BIZITZA

BASOA BIZITZA

GURE KULTURA
BIZITZA

EUSKARA BIZITZA



Lapurreketa Baserri Eskola

Gure Baserri Eskola eskola egonaldiak, eskainitako heziketa programetan oinarritzen dira. Hauek partaideen ikasmalaren helburuetara, egonaldiaren urtarora eta egonaldiaren iraunpeenera egokitzen dira.

Gure programak lan arlo ezberdinetan antolatuta daude, egonaldi mota bakoitzean bete beharreko helburuen arabera konbinatzen direlarik.

Lapurreketa lan taldeak, garatzen diren programak ikasketa ekintzak eta komunikazio ekintzekin lotuta ulertzen ditugu, horrela pertsonen izaeraren eta garapenean zer esan berezia duten sozialgintza elementuak indartuz. Modu bereberean, arlo ludikoa pertsona nahiz talde garapenearen zerbitzuan jarrita dago, bere erabilgarritasun motibatzailea dela eta heziketarako tresna bezala erabiltzen delarik.



Baserriko Eskola Egonaldi motak

Bi egun, gau bat

Sarrera 11:00etan

Irteera: 15:00etan

Hiru egun, bi gau

Sarrera 11:00etan

Irteera: 15:00etan



Lan arloak

Nekazal	Abereak	Basoa	Mito eta kondairak	Kultura
Ingurunearen ezagupen	Interpretazioa	Lehengaien transformazioa	Birziklapena	2030

Interesdun datu batzuk

Lapurreketa Baserri Eskola Uurkia elkarte kooperatiboak kudeatzen du.

+35 urte hezkuntza tresna gisa

+35 urte landa garapenaren sentsibilizazioa

Gure Baserri Eskola DIMAko udalerrian (Bizkaia) kokatua dago, Zumeltza gainetik oso gertu eta Dima eta Otxandio herriak lotzen dituen errepideko 38 kman. Otxandiotik 3 kilometrora.

Bilbotik BIZKAIBUS zerbitzua dago eta autobusak gure egoitzaren aurrealdean dute geralekua.



www.lapurreketa.eus

lapurreketa@lapurreketa.eus



629877446

GURASOENTZAKO GOMENDIAK - RECOMENDACIONES A LAS MADRES Y A LOS PADRES

Recomendamos que traigan

- * Mudas-Ropa interior
- * Chandals
- * Jersey
- * Calcetines
- * Deportivas y algún otro calzado de recambio
- * Útiles de aseo: Jabón, toalla, cepillo y pasta de dientes, peine...
- * Pijama

Gomendatzen duguna

- * Jantzierantziak
- * Txandalak
- * Jertseiak
- * Galtzerdiak
- * Deportibak, edota errepuestorako oinetakoak
- * Garbiketarako tresneria: Xaboia, eskuoihala, hortzorea, hortzeskubila, orrazia...
- * Pijama

Pedimos que traigan

- *Chubasquero o ropa de agua
- *Botas de agua y/o botas de monte
- *Zapatillas de casa
- ***Saco de dormir. ADECUADO para la época de año que se realice la estancia**
- ***CANTIMPLORA**
- ***FUNDA DE ALMOHADA**
- ***SABANA BAJERA (90)**

Eskatzen dugu ekartzea:

- *Txubaskeroa edo uretako soinekoren bat
- *Uretako botak edota mendiko botak
- *Etxeko zapatilak
- *Urteko sasoiari egokitutako **LOSAKUA**
- ***KANTINPLORA**
- * **BURUKO AZALA**
- * **AZPIKO IZARA (90)**

GARRANTZITSUA DA UNEKO KLIMATOLOGIA ZAPATILA ETA/EDO BOTEN KOPURUA PLANIFIKATZEKO

PRESTAR ATENCION A LA EPOCA DEL AÑO PARA EL NUMERO DE ZAPATILLAS Y/O BOTAS

Es muy importante que los alumnos y las alumnas traigan maletas, mochilas o bolsas de tamaño reducido y que las amas o los aitas las hagan con ellos y ellas para que sepan el contenido.


Oso garrantzitsua da ikasleek tamaina txikiko maletak, motxilak edo poltsak ekartzea eta gurasoek haiekin egitea, horien edukia jakin dezaten.

Logeletan burkoak daude, horregatik eskatzen dizuegu zorroa ekartzea.

En las habitaciones disponen de almohadas, por eso es importante que traigan una funda para la almohada

Egun bateko kronograma

8:30	Jaikitzea: garbiketa pertsonala, jantziak prestatu...
9:00	Gosaría
10:00	Lan saioen hasiera
12:30	Bazkaria (adinaren arabera eta ekintza gehigarri modura ikasleek mahaia jartzen eta jasotzen laguntzen dute)
12:45	Irakasleen bazkaria (ordutegi hau aldatua izan daiteke egitarauko ekintzen arabera)
13:30 - 14:00	Lapurreketako begiraleek gidatutako ekintzak.
14:00 -15:00	Denbora Librea ikastetxeko arduradunen zainpean.
15:00	Lan saioak
17:00	Askaria
18:00	Lan saioak
19:00-20:00	Denbora Librea ikastetxeko arduradunen zainpean.
20:00	Afaria
20:15	Irakasleen afaria (ordutegi hau aldatua izan daiteke egitarauko ekintzen arabera)
20:35	Gabeko ekintzak
21:00	Egunaren bukaera





Jantokia eta sukaldea

Ikasleen elikadura gure beste kezka handietako bat da, eta bizimodu osasungarrirako ohitura sustatzeko helburua osatzen du.

Hori dela eta, Lapurreketa Baserri eskolan prestatzen ditugun menuek garrantzi handia ematen diete **sasoiko eta hurbileko elikagaiei**, eta gure sukaldariak gure instalazioetan **prestatzen dituzte egunero**.

Dieta berezien kudeaketa

Gero eta haur gehiagori diagnostikatzen zaie intolerantzia edo alergiaren bat, eta dieta berezia egin behar izaten dute.

Dieta berezien kudeaketan, arduraren familiarren, Ikastetxearen eta Lapurreketaren artean partekatzen da.

Badakigu gaia garrantzitsua dela, eta erabat sentsibilizatuta eta inplikaturik gaude. Hori dela eta, **dieta berezien prozedura** sortu dugu, arriskuak murrizteko asmoz.



Egonaldi baterako pausuak



Erreserbak martxoko lehenengo astean eta ikasturte osoan zehar Izena emateko deitu 629877446 telefonora edo bidali emailbat lapurreketa@lapurreketa.eus helbidera.



Lapurreketa Baserri Eskola
Lapurreketa Auzoa, 2
48141 DIMA Bizkaia - 629877446

KONTRATUARI BURUZKO OHARRAK

Erreserba-orriko datuak ondo dauden baieztatzea eskatzen da.

Erreserba baterako gutxieneko kopurua 25 parte-hartzailekoa da, eta gehienekoa 80 parte-hartzailekoa.

Erreserba finkoa izan dadin 25%a ordaindu behar da. Momentu honetatarte ez da erreserba finkotzat onartuko. Kontratuan aipatutako epean ez bada aurrerapena egiten, data hoiek libre gelditzen direla ulertuko dugu.

Kontratua jasotzen denetik ikastetxeak 15 egun ditu ordainketa formalizatzeko. Epe hori igaro eta ordainketarik jaso ez bada, erreserba ez da baieztatuko.

Lapurreketa erreserba formalizatzeko unean, % 25eko faktura egingo du.

Bizi dugun egoera kontutan hartuta **Ume kopuru zehatza** lehen bait lehen zehaztea eskatzen zaizue, egonaldia behar den bezala antolatu ahal izateko.

Erreserba egitean emandako ume kopurua izango da faktura egitean kontutan hartzen dena. Kopuru hau asko aldatuko balitz, egonaldia beste data batzuetara pasatu ahal izan daitezke

EGONALDIAREN BIGARREN ORDAINKETA:

Ikastetxera iristean eta ikasle eta irakasle kopurua baieztatzean, faktura egonaldiaren aste berean ordaindu behar da gutxienez. Ostirala edo jaieguna bada, ordainketa hurrengo lanegunera eraman daiteke.

Egonaldia burutzen den bitartean umeren bat Lapurreketatik atera ezker ez da egonaldiko dirua itzuliko.

Lapurreketan egingo duzuen egoitza erosoago suerta dakizuen gela bakoitzetik irakaslea bakarrik etortzea iradokitzen zaizue.

Ordutegiari dagokionez **sarrera** eta **irteera ordua** kontratuan jarritakoa errespetatu behar da.

Ondoren gehitzen zaizkizuen orriak ondo begiratu eta sinatzea eskatzen zaizue. Gurasoek umeek egonaldian parte hartzeko baldintzak onartzea, batez ere.

Erreserbaren % 25 ez da itzuliko erreserba ezeztatzea justifikatutako ezinbesteko arrazoirik gabe egiten bada. Eta inoiz ez ikastetxearen aldebakarreko erabakia bada

Ezeztapena lapurreketaren eta ikastetxearen artean adosten bada, erreserbaren zenbatekoa zentroaren etorkizuneko egonaldietarako gordeko da.

Ikasle bakoitzeko prezioan premia bereziak dituzten ikasleentzat beharrezkoak diren irakasleak, tutoreak eta laguntzaileak sartzeko dira (+/- 20 ikasleak). Ikastetxetik irakasle gehiago bidaltzen badituzte, horiek mantenu-gastuak ordaindu beharko dituzte.

Irakasleak, laguntzaileak eta tarifak

Ikasle bakoitzak ordaintzen duen prezioaren barruan, gela bakoitzeko irakasle baten doakotasuna dago. (+/- 20 ikas.)

Premia bereziak dituzten ikasleentzat beharrezkoak diren laguntza-irakasleak eta/edo laguntzaileak ere sartuta daude.

Gainerako helduak: ikastetxeak bere antolaketagatik edo irizpideagatik taldea lagunduz agintzen duen baino gehiagoko irakasleek honako prezio hauen arabera kostua izango dute:

EGUNEKO BISITA: 10 € - BI EGUN GAU BAT: 50 € - HIRU EGUN BI GAU: 80 €

Tarifa horiek elikagaien gastuak ordaintzeko aplikatzen dira.

ORDAINKETAK

Kontratua jasotzen denetik ikastetxeak 15 egun ditu ordainketa formalizatzeko. Epe hori igaro eta ordainketarik jaso ez bada, erreserba ez da baieztatuko.

EGONALDIAREN BIGARREN ORDAINKETA:

Ikastetxera iristean eta ikasle eta irakasle kopurua baieztatzean, faktura egonaldiaren aste berean ordaindu behar da gutxienez. Ostirala edo jaieguna bada, ordainketa hurrengo lanegunera eraman daiteke.

LOGELETAKO PLAZAK



GORBEIA : 10 lek. ALTUNGANE : 12 lek. ZUMELTZA: 12 lek. SAIBIGAIN : 18 lek.
ANBOTO : 24 lek. IZEN BARIK : 10 lek. IRAKASLEAK : 4 lek.
IKASKEAK 86 plazak IRAKASLEAK 4 PLAZAK GUZTIRA 90 PLAZAK

